

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

516

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 28koa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez laguntzak ematen eta ukatzen baitzaizkie garagardoa egiten duten enpresei, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren babesean. Agindu horren bidez, Ukrainako inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak nabarmen eragindako elikagai-katearen sektoreentzako ezohiko laguntzen deialdia egin zen 2023. urterako.

Ikusi dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren VII. kapituluaren babesean aurkeztutako laguntza-eskaerak. Agindu horren bidez, Ukrainako inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak nabarmen eragindako elikadura-kateko sektoreentzako 2023ko ezohiko laguntzen deialdia egin zen. Horrez gain, eskabide horiekin batera aurkeztutako dokumentazioa ere aztertu da.

Kontuan hartu da Balorazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena. Batzorde hori deialdi-aginduaren 8. oinarria aplikatuta eratu, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2023ko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena egiteko, kontuan hartu dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduan ezarritako onargarritasun-irizpideak.

Aurretik azaldutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei garagardoa egiten duten enpresentzako laguntzak ematea. Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren VII. kapituluaren jasota daude, eta eranskin horretan zuzeneko laguntza gisa emandako zenbatekoa zehazten da. Zenbateko osoa 631.138,72 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren VIII. kapituluaren jasotako pentsu-fabrikatzaileentzako laguntzak ukatzea, eta eranskin horretan laguntza ukatzeko arrazoia zehaztea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraz, interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko du beronen aurka, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 28a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2024ko urtarrilaren 31, asteazkena

I.ERANSKINA

Garagardoa egiten duten enpresentzako laguntzen programaren kargura emandako dirulaguntzak

	Espediente zk.	Sozietate-izena	IFK/NAN	Laguntza (euro)
1	00001-CER2023-61	Laugar Brewery, Sociedad Limitada	B95713780	45.141,17
2	00003-CER2023-61	Basqueland Brewing Company, S.L.	B75086942	307.275,20
3	00004-CER2023-61	Basque Beer House, S.L.	B75108373	47.908,00
4	00007-CER2023-61	Bidassoa Basque Brewery, S.L.	B75101584	140.228,00
5	00008-CER2023-61	Angel Luis Esteban Cabanillas	76021729J	12.159,20
6	00010-CER2023-61	Cervezas Artesanas de Bilbao, Sociedad Limitada	B95765681	17.578,00
7	00011-CER2023-61	Kaia Koop. Elk. Txikia	F95760997	36.977,95
8	00013-CER2023-61	Baias Garagardotegia, S.C.	J01450451	12.227,20
9	00014-CER2023-61	Santa Klara Donostia Brewery, S.L.	B75173260	3.644,00

2024ko urtarrilaren 31, asteazkena

II.ERANSKINA

Ukatutako eskabideak

	Espediente zk.	Sozietate-izena	IFK/NAN	Ukoaren arrazoa
1	00002-CER2023-61	Brewgross, S.L.	B75119396	Ez da betetzen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3.bis artikulua.
2	00005-CER2023-61	Meta Edabeak, S.L.	B42928630	Ez du 47.b) oinarria betetzen. Laguntzaren xede den ekoizpena ez da egiten Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan aktibo dagoen establezimendu batean.
3	00006-CER2023-61	La Salve Comercializadora, S.L.	B95799540	Ez du betetzen 47.c) oinarrian ezarritako baldintza, ez dago alta emanda EJSN 2009 1 105 epigrafean agindua argitaratu aurretik, eta 2022an jarduera frogagarria zuenik.
4	00009-CER2023-61	Euskal Garagardoa, S.L.	B20632493	Ez da aurkeztu Foru Ogasunaren ziurtagiriak, ekoizitako garagardo-litroak adierazten dituenik.
5	00015-CER2023-61	Byra Cerveza Artesana, S.L.	B01527951	Ez du 47.b) oinarria betetzen. Laguntzaren xede den ekoizpena ez da egiten Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan aktibo dagoen establezimendu batean.
6	00016-CER2023-61	Ana De La Maza Llaguno	16090882J	Ez du betetzen 47.c) oinarrian ezarritako baldintza, ez dago alta emanda EJSN 2009 1 105 epigrafean agindua argitaratu aurretik, eta 2022an jarduera frogagarria zuenik.